

Barne

komunikazio orokorra



2018ko martxoa

Kaixo burkideok!

Honako Barne Komunikazio Orokorraren helburua burutu dugun eztabaida prozesuaren amaieraren berri ematea da. Aldez aurretik, Xabier Rey burkidea gogoratu nahi dugu. Komunikazio hau amaituta gurela iritsi zaigu berri lasgarria. Agur eta ohore, Xabier.

1.- EMAITZA

Kidegoak babes oso handia eman dio proposamen politikoari. Parte-hartzea handia izatea bilatu da. Oro har, egindako lanagatik oso balorazio positiboa egin behar da, zailtasunak eta hutsuneak izan badira ere, leku batzuetara iristea lortu ez delako eta beste batzuetan berezko ezintasunak zeudelako.

Boza eman dutenen %93k babestu du proposamena, %4k ezezkoa eman dio eta %3 abstenitu da edo zuri bozkatu du. Gainera, proposamen politikoa ontzat emateko Zuzendaritza Batzordeak beste irizpide bat jarri zion bere buruari: Zuzendaritza Batzordeak aho batez onartu zuen proposamen horrek eremu guztietan jaso behar zuen gehiengoa, hau da, egitura operatiboan, kartzeletan, erbestean eta kide legalen artean. Bistan da denetan hala izan dela.

Gure estimazioaren arabera, 2.500-3.000 lagunek izan dute, modu batez edo bestez, eztabaidaren eta eztabaidaren mamiaren berri prozesu honetan. ETAkoak ez diren hainbat militante ere informatuak izan dira. Horietako batzuek ekarpenak egin dituzte.

1335 kidek zuten boza emateko eskubidea. Horietatik 70k ez dute parte hartu nahi izan eta horrela adierazi dute espresuki. Arrazoi ezberdinengatik:

- Azken urteetan Erakundearekin izandako harreman eskasagatik ez zuten bere burua legitimatua ikusten. Oro har, proposamen politikoaren aldeko jarrera azaldu dute. Parte hartu ez dutenen artean, talde handiena izan da honakoa.
- Erabakia jada hartua zegoela uste zutelako. Oro har, estrategia aldaketarekin edo estrategia aldaketaren garapenarekin kritiko direnek osatu dute multzo hori.
- Bestelako motibazioak: arrazoirik eman ez dutenak, interesik eza azaldu dutenak, erabakia berandu zetorrela ziotenak, errepresioaren beldurragatik parte hartu nahi ez dutenak, zuzendaritzari konfiantza osoa egiten diotenak...

Arrazoi ezberdinak direla medio (teknikoak eta denborarekin loturikoak nagusiki) 188 kideren bozak ez dira iritsi; gehienei eztabaidarako dokumentuak iritsi zaizkiela eta hauetariko askok parte hartzeko konpromisoa agertu zutela baieztatu dezakegu. Kasu gehienetan harrera ona azaldu zuten, baina, esan bezala, arazo ezberdinak tarteko ezin izan ditugu boz horiek garaiz zenbatu. Denen artean, izango da parte hartu nahi izan ez duen multzo bat ere, nahiz eta ez duen espresuki horrela adierazi. Nolanahi ere, iritsi ez diren boz horiek ez lukete azken emaitzan aldaketa esanguratsurik eragingo.

Boza eman duten 1077 kidek horrela bozkatu dute:

- Proposamenaren alde: 997
- Proposamenaren kontra: 47
- Boz zuria edo abstentzioa: 33

Eztabaida prozesuari amaiera emateko Ondorio Txosten bat egin da. Txosten hori Zutabe batean argitaratuko da, beste idazki batzuekin batera (ibilbide armatuari buruzko informearen laburpena, hildako burkideei omenaldia, eragindako kalteari buruzko ebazpena...).

Aldi berean, eztabaidan zehar izandako ekarpen guztiekin informe bat egin da, kidego osoak azaldutako ideia, argudio eta kezka nagusiak ezagutu dezan. Komunikazio orokor honekin batera iritsi behar zaio kidegoari txosten hori.

2.- ERASKINARI BURUZ

Eztabaidaren ondorioz, Zuzendaritza Batzordeak erabaki du txostenaren eranskina bertan behera geratzen dela. Hau da, ez dela *“Euskadi Ta Askatasunaren Ekinbide Armatuaren Ondorioak Kudeatzeko Behin-behineko Batzorde Teknikoa”* osatuko.

Bi izan dira horretarako arrazoiak:

- Kide askok azaldu dute kezka eranskin horrek zalantzan jarri dezakeela erabaki nagusia, horretarako erabili dezakeela etsaiak eta beste eragile batzuek. Erabakiaren garrantzia lausotuko lukeen edozer gauza baztertu behar dela nabarmendu dute.
- Eztabaida prozesuak iraun duen hilabeteotan egiturak ahalegin handia egin du batzorde horren esku geratu behar ziren gaiak bideratzeko. Adibide bat jartzearen, ebazpena idatzi zenean armagabetzea egin berria zen, eta oraindik armen aferan gera zitezkeen hutsuneak kudeatzeari buruz baziren zalantzak. Hori dena bideratzea lortu da. Aldi berean, gure egiturak egindako esfortzuaz gain, beste eragile batzuek ardurak hartu dituzte ondorioei aterabideak emateko.

Beraz, Zuzendaritza Batzordeak oraindik itxi gabeko gaiak bideratu ahal izateko neurriak hartu ditu, ziklo amaieraren erabakia zalantzan jar dezakeen inongo egitura formalik eraiki beharra izan gabe.

3.- AZKEN HITZA

Erabakiaren berri modu solemnean emateaz gain, Erakundeak behar beste azalpen eskainiko du zenbait ekimenen bitartez eta formatu ezberdinetan.

ETako kide izandakoek orain arteko diskrezio eta segurtasun neurri berdinak mantendu beharko dituzte aurrerantzean ere Erakundearen barneko jardun indibidualari eta ekinbide kolektiboari dagokienez. Eta leial jokatu ETak hartutako erabakiarekin eta askapen prozesuarekin.

Kidegoa sendotasunez eta arduraz aritu behar da fase politiko honetan askapen mugimenduak behar duen bultzadari ekarpena egiteko.

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA! GORA EUSKAL HERRIA SOZIALISTA!
JO TA KE INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA LORTU ARTE!

Euskal Herrian, 2018ko martxoa